

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

OINEZKOEN GUNEA ANTOLATZEKO

ORDENANTZA

DURANGO HIRIA

1. Aldaketa hasierako onarpena: 2006ko ekainaren 29ko Ohiko Osoko Bilkuran.

BAOn argitalpena: 2006ko uztailaren 11an, 132 zk.

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2006/07/20060711a132.pdf?

Alegazioak: BAI (4).

Behin Betiko onarpena: 2006ko irailaren 28an Ohiko Osoko Bilkuran.

BAOn argitalpena: 2006ko urriaren 25ean, 204 zk. (baino ez aldaketa)

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2006/10/20061025a204.pdf?

2. Aldaketa hasierako onarpena: 2017ko abenduaren 19ko Ohiko Osoko Bilkuran.


BAOn argitalpena: 2018ko urtarrilaren 9an, 6 zk.

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2018/01/09/II-6200_cas.pdf?

Alegazioak: EZ.

BAOn argitalpen osoa: 2018ko martxoaren 7an, 47 zk. (baino ez aldaketa)

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2018/03/07/II-991_eus.pdf?



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1. ARTIKULUA: XEDEA ETA LEGE-OINARRIA

Ordenantza honen xedea Durango Hiriko Gune Historikoan eta inguruko kaleetan, zamalanetarako irispidea eta aparkalekuak arautzea da. Izan ere, udalerraren gune horrek oinezkoentzako gune bihurtzeko ezaugarriak ditu, eta haren eremuko kale guztiak oinezkoak ibiltzeko gordeko dira, ordenantza honetan jasotzen diren salbuespenak izan ezik.

Ondorioz, ordenantza honetan gune horretarako irispide-baldintzak eta zamalanetarako gehieneko denbora zehazten da, bertan araupetutako kolektiboentzat.


Oinezkoen gunera sartuko diren ibilgailuen Baimendutako Gehieneko Zama (BGZ) 5 tonakoa izango da.

2. ARTIKULUA. APLIKATZEKO ESPAZIO-EREMUA

Ordenantza honen aplikazio-eremua Durango hirian oinezkoen gune izendatutakoa da, hau da: Gune Historikoa eta inguruko hainbat kale. Hona hemen zerrenda:

- Barrenkalea
- Artekalea
- Goienkalea
- Kalebarria
- Andra Mari kalea
- Zeharkalea
- Lariz-Torre kalea
- Santa Ana plaza
- San Martin ataria
- Bartolome Ertzilla kalea
- Kurutziaga kalea, Andra Mari kaletik Komentukaleko bidegurutzeraino
- Kanpatorrosteta kalea
- Uribarri kalea
- Azoka kalea
- Monago-Torre kalea, Arandoño-Torre kaletik Azokako plazaraino
- Komentukalea, hasieratik Antso Estegiz zumardiko bidegurutzeraino
- Balbino Garitaonandia plaza
- Santanoste kalea
- Pinondo plaza Santa Anako arkutik

Gune horretako sarrerak eta irteerak behar bezala seinaleztaturik egongo dira, gune horretan ibilgailuak sartzea eta zirkulatzea eragotziko duten bestelako elementu mugikorak ipintzeko kalterik gabe.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

3. ARTIKULUA.- KOLEKTIBOEN ARGIBIDE TERMINOLOGIKOAK

Ondoren araupetzen diren kolektiboek baino ez dute izango Oinezkoen Gunean sartzetik, ondoko artikuluetan xedatzen diren ordutegiaren, unitateko gehieneko denboraren, bertan egoteko denboraren eta kudeaketa-sistemaren arabera, 5. artikuluan xedatzen denaren kalterik gabe.


Ordenantza honen ondoreetarako, hauxe bereizten da:

- a) Oinezkoen Guneako biztanleak, bertan garajerik ez dutenak: gune horretan jabetzapeko edo errentako etxebizitza duten pertsona fisikoak, bertan erroldaturik daudenak.
- b) Oinezkoen Gunean kokaturik dauden eta baimendutako pasabidedun garaje komunitarioan plaza duten jabe edo errentariak.
- c) Ohiko hornitzaileak: hartarako egokituriko ibilgailuen bidez bertako tabernak, saltegiak edo etxebizitzak hornitzeko zamalanak egin behar dituzten garraiolariak.
- d) Merkatariak: ordenantza honetako espazio-eremuan garatzen den jarduera baten titularrak. Kudeaketa-sistemari dagokionez, ohiko hornitzaileen baldintza berak dituzte. Kolektibo honetan sartzen dira euren zerbitzuak eskaintzeko (konponketak, obra txikiak eta antzekoak) oinezko gunera sartu nahi duten garraiolariak ez diren profesional guztiak. Unitateko gehieneko egonaldia ondoko artikuluan kolektibo honetarako zehazten dena izango da.

4. ARTIKULUA.- ORDUTEGIA

Oinezkoen Gunean sartzeko ordutegia eta zamalanetarako bertan egoteko unitateko gehieneko epea honako hauek izango dira:

KOLEKTIBOA	ORDUTEGIA	GEHIENKO EGONALDIA UNITATEKO
	Astelehenetik igandera	
OINEZKOEN GUNeko BIZTANLEAK, BERTAN GARAJERIK EZ DUTENAK	Sarbide librea 24 orduetan	30 minutu
GUNeko GARAJEREN BATEN GAINEAN ESKUBIDE ERREAL EDO PERTSONAL BATEN TITULARRAK, EGOILIARRAK IZAN ZEIN EZ.	Sarbide librea 24 orduetan	Ez dagokio gunean egoterik
HORNITZAILEAK	Astelehenetik larunbatara	
MERKATARIAK/GARRAIOLARI EZ DIREN PROFESIONALAK	Astelehenetik larunbatara	30 minutu
MERKATARIAK OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUEN TITULARRAK IZAN EZIK	Astelehenetik larunbatara (Jai egunak izan ezik)	30 minutu (behin baino ez merkatari bakoitzeko)



DURANGO

Udala • Ayuntamiento


Idazkaritza
Secretaría

Gehieneko egonaldia agortutakoan, erabiltzaileak gune horretatik joan egin beharko du. Hala ere, berriro ere itzuli ahal izango du bertara behar beste aldiz, baina horretarako zehaztutako ordutegiaren barruan, salbu eta arratsaldeetan sartuko diren merkataria, hauen sarbidea lehen aipatutako eran egingo baita.

5. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK

Lehen aipatutako ordutegi-araubideak ez ditu barne hartuko ondoko ibilgailuek beren zerbitzua betetzeko zirkulatzea eta aparkatzea.

- a) Suhiltzaileak, Poliziak, anbulantziak eta, oro har, zerbitzu publikoak eskaintzeko behar direnak.
 - b) Gaixoak edo mugikortasun murriztua duten pertsonak guneko etxe batera edo bertako etxe batetik mugitzea.
 - c) Oinezkoen Gunean garaje komunitarioko plaza bat duten jabeen edo errentarien – gunean bizi zein ez– ibilgailuak, 3. artikuluan b) atalak aipatzen dituenak. Ibilgailu horiek ez dute sartzeko ordutegi-mugarik, baina ezin izango dute aparkatu ordenantza honen aplikazio-eremuan, eta kontrolpean egongo dira 7. artikuluan araupezen den kudeaketa-sistemaren bidez.
 - d) Kasu berezietan (etxe-aldaketak, larrialdiko obrak eta ezbeharren konponketak, edo antzeko egoerak), eta betiere zamalanak ezarritako ordutegian egiterik ez dagoenean, Udaltzaingoak emango du Oinezkoen Gunera sartzeko baimena.
 - e) Gunean trafikoa etetea eskatzen duten obrako elementu osagarriak ipintzeko, ordenantza honek arautzen duen gunean sartu behar duten garraiolari ez diren profesionalak 4. artikuluan zehaztutako ordutegitik kanpo egingo dute, eta Udaltzaingoaren baimena izan behar dute.
 - f) Bizikletak.
 - g) Zerbitzuak eskaintzen dizkieten establezimenduaren publizitatearekin behar bezala identifikaturik dauden salgaien banaketarako motozikletak eta ziklomotoreak. Obra handiak egiten dituztenak, beti ere, baimena ematerako orduan eskaturik betebeharrak betetzen badituzte.
2. Sarbide-araudia, honako kasuetan, dagokion administrazio-ebazpenaren bidez zehaztuko da.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

6. ARTIKULUA.- KUDEAKETARAKO, ZAINTZARAKO ETA KONTROLERAKO SISTEMA

Ordenantza hau betetzeko xedez, behar diren baliabide material eta giza baliabideez hornituriko kudeaketa- eta kontrol-sistema ezarri da. Durangoko Hiriko Trafikoa eta Aparkalekuak Antolatzeko ordenantza betearazteko kontrol-zerbitzua berengain duten berberak izango dira.


Kudeaketa-sistema, hain zuzen, honela gauzatuko da:

- a) Gunean garajetik ez dutenentzat edo Gune Historikoan garaje komunitario batean plaza baten eskubide pertsonal edo errearen titularrak direnentzat –gunean bizi zein ez–, TAG sistema erabiliko da. Sistema hori edukitzeak edo legez erabiltzeak sartzeko araubidea baimentzen dute irizpide subjektiboa (egoiliarra) eta objektiboa bateratuz (egoiliarraren jabetzapeko ibilgailuaren matrikula edo garajea alokatu duenak edo titularrak izendatutakoa).
- b) Ohiko hornitzaile, saltzaileentzat eta profesional autonomoentzat, pegatina edo bereizgarri baten bidez. Aurretiaz administrazio-erregistro bat egingo da, eta horrek erabiltzaile erregistratuaren jitea emango die. Era berean, elementu subjektiboa (erregistroan hornitzaile gisa, jarduera baten titular gisa edo profesional autonomo gisa jasota egotea) eta objektiboa (hornitzaileek banaketa egiteko ibilgailua; profesionalen ibilgailu industrialak edo ibilgailu batetik eratorria eta, hiru kasuetan, ibilgailuaren matrikula) konbinatuko dira.
- c) 4. artikulua zehaztutakoaren arabera, arratsalde sartuko diren merkatariak, lehen aipatutako TAG txartela lortu ostean sartuko dira. Txartelaren jabe denak, baimena izango du, aipatutako orduen barruan, gehienez ere, eguneko/30 minutuko sartu-irten bakarra egiteko jarduerako titular bakoitzeko. Konbinatu egingo dira irizpide subjektiboa (jardueraren titularra) eta irizpide objektiboa (ibilgailuaren matrikula, beronen jabea honakoak izan daitezkeelarik: jardueraren titularra, bere ezkontidea, afektibitate-harremanen bat duen pertsona edo lerro zuzeneko ondorengoak), beti ere, aipatutako TAG txartelari dagokion tasa ordaindu eta gero.

7. ARTIKULUA.- GARAJERIK GABEKO EGOILIARRAK (OINEZKOEN GUNEAN GARAJE KOMUNITARIOKO PLAZA BAT DUTEN JABEEN EDO ERRENTARIEN KASUAN ERE APLIKATZEN DA –GUNEAN BIZI ZEIN EZ–)

7.1. Oinezkoen Gunean bizi eta gune horretan garajetik ez dutenen kasuan, TAG txartela lortu ahal izango dute auto baten jabe izanda, honako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsona fisikoek:

- a) Ibilgailua pertsona fisikoarena izatea, ohiko bizilekua Durangon izatea, bertako biztanle gisa Udal Erroldan egotea eta txartela eskatzen den guneko lurralde-eremuan bertan dagoen helbideren batean inskribaturik egotea. Xede horretara



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

rako, ibilgailuaren jabetzat joko da Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emandako zirkulazio-baimenean agertzen den bera.


- b) Ibilgailuaren jabeak edo ohiko erabiltzaileak (hori ere Oinezkoen Gunean bizi dena eta haren baimena duena) gidatzeko baimena indarrean edukitzea.
- c) Ohiko helbidea, Udal Erroldan eta zirkulazio-baimenean agertzen dena, eta zerga-helbidea berbera izatea.
- d) Ibilgailua Durangoko Udaleko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erroldan alta emanda egotea zerga hori ordainduta edukitzea, eta zerga ordaintzen den helbidea a) eta b) ataletako bera izatea.
- e) Erantzukizun zibileko aseguria indarrean edukitzea.

7.2. Era berean, oinezko gunean bizi den egoiliarrek bere enpresak utzitako ibilgailuren bat badu, eta ibilgailua enpresarena bada edo errendamendu kontratu baten bidez (leasing edo renting) eskuratua bada, aipatutako egoiliarrek TAG txartela lortu ahal du, beti ere, aurreko b) eta e) ataletan ezartzen dena egiaztatzen badu eta, halaber, honako hauek aurkezten baditu: ibilgailuaren jabetzaren egiaztagiria edo ibilgailuaren gainean enpresak duen kontratua eta, halaber, enpresak luzaturiko egiaztagiria, zeinetan egiaztatzen den eskatzailea dela ibilgailuaren erabiltzaile bakarra, lanorduz kanpo erabiltzeko baimena duela eta aipatutako ibilgailua erabiltzeak ordainsari moduan zer-gapetzen duela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

7.3. Oinezkoen Gunean garaje komunitarioko plaza baten titularrak edo errentariak direnean –egoiliarrek izan zein ez– jabetza-eskubidea edo garaje-plazaren errendamendua egiaztatu ostean, turismo-ibilgailu bat identifikatu dezakete garaje-plaza bakoitzeko. Ibilgailu honen erabiltzailea 7. artikuluan arautzen den sarbide-araudiaren onuraduna izango da. Salbuespeneko zirkunstantziaren bat ematen bada, bigarren ibilgailu bat ere baimendu daiteke garaje-plaza bakoitzeko, betiere, beharrezana behar den moduan justifikatzen bada. Edozein kasutan, ibilgailuak indarrean dagoen erantzukizun zibilaren aseguria beharko du izan. Honez gain, ibilgailua alta emanda badago Durangoko Udaleko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga-erroldan, ordaindua beharko du izan aipatutako zerga hori.

7.4. Artikulu honek araupetzen dituen erabiltzaileek Oinezkoen Gunean sartzerik izango dute TAG txartelari esker, 4. artikuluan zehazten diren egunetan eta ordutegian. Eta gunean garajerik ez duten egoiliarren kasuan, txartel horrekin, bertan apartatzerik izango dute zamalanak egiteko, 4. artikuluan xedatzen den unitateko gehieneko denboran.

7.5. Durangoko Udalak ofizioz egiaztatu ahal izango du edo interesatuari eskatu ahal izango dio TAG txartelaren eskatzailearen benetako eta ohiko bizilekua eta zerga-helbidea egiazta ditzan, egoiliarren kasuan.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

7.6. Egoiliarren kasuan, pertsona eta ibilgailu bakoitzeko TAG txartel bat emango da; hala ere, ibilgailu baten sarbidea ahalbidetzen duen txartel bera ibilgailuaren titularraren etxebizitzan erroldaturik dauden eta ohiko bizilekua bertan duten familia-unitateko kideek erabili ahal izango dute.

Era berean, titular berari beste txartel bat ere eman ahal izango zaio bigarren ibilgailua haren ezkontideak edo lehenengo mailako ahaide zuzenek erabiltzen badute, eta titularraren bizileku berean bizi eta han erroldaturik badaude.

7.7. Dena dela, bizileku bakoitzeko txartel-kopurua, gehienez, hirukoa izango da.

7.8. Txartelaren indarraldia mugagabea izango da titularrak txartela jasotzeko betekizunak betetzen jarraitzen duen bitartean, eta txartela emateagatik tasa ordainketa bakarrean ordainduko da, dagokion ordenantzan jasotzen denaren arabera. Tasarengatik ordaindutako dirua itzuli egingo zaio titularrari txartela itzultzen badu ez duelako behar edo txartelaren jabe izateko eskubidea galdu duelako.


7.9. Txartela galduz gero, lapurtzen badute edo okerreko erabileraren ondorioz balio gabetzen bada, titularrak edo erabiltzaileak beste txartel bat lortu ahal izango du dagokion tasa ordaindutakoan.

8. ARTIKULUA.- GARAJERIK GABEKO EGOILIARREK TAG TXARTELA LORTZEA (EGOILIARRAK IZAN ZEIN EZ, OINEZKOEN GUNEAN GARAJE KOMUNITARIOAN PLAZA BATEN TITULAR EDO ERRENTARIAK DIRENEI ERE APLIKATZEKO):

TAG txartelak lortzeko, garajerik gabeko egoiliarrek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskatera inprimaki ofizialean, behar bezala bete.
- b) Nortasun Agiria edo, atzeritarrek, Egoitza-txartela edo eskatzailearen identitatea egiaztatzen duen Pasaporte. Kasu guztietan, agiri horietan agertzen den helbideak eta udal erroldan agertzen denak bera izan behar du.
- c) Eskatzailearen edo eskatzaileak baimendutako erabiltzailearen gidatzeko baimena.
- d) Eskatzailea edo hark baimendutako pertsona auto gisa adierazitako ibilgailuaren jabea dela egiaztatzen duen zirkulazio-baimena.
- e) Erantzukizun zibilaren aseguruia, indarrean dagonena.

8.2. Enpresak utzitako ibilgailua duten egoiliarrek a), b) eta c) ataletan aipatutako dokumentazioa beharko dute aurkeztu, eta ibilgailuaren zirkulazio-baimena edo/eta leasing edo renting kontratua ere bai; halaber, enpresak luzaturiko egiaztagiria, zeinetan egiaztatzen den eskatzailea dela ibilgailuaren erabiltzaile bakarra, lanorduz kanpo era-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

biltzeko baimena duela eta aipatutako ibilgailua erabiltzeak ordainsari moduan zergapetzen duela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

8.3. Oinezko gunean garaje-plazen jabeak direnak edo errendamenduak dituztenak, honako dokumentazioa aurkeztu behar dute:

- a) Eskari-orri ofiziala, behar den moduan beteta. Bertan, garaje-plazara sartu ahal diren ibilgailuen matrikulak identifikatuko dira (gehienez ere, bi ibilgailu garaje-plaza bakoitzeko), eta justifikatu egingo da garaje-plaza horretako bigarren txartelaren beharrezan.
- b) Garaje komunitarioaren plazaren gaineko jabetza edo errendamendu-kontratua.
- c) Nortasun Agiri Nazionala edo, atzeritarrei dagokienez, eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen egoitza-txartela edo pasaporte. Edozein kasutan, agiri horietako helbideak bat etorri behar du errolda-agirian agertzen denarekin.
- d) Erantzukizun zibilaren aseguruia, indarrean dagoena.

8.4. Hortaz, eskaturiko agirien fotokopiak emango dira, eta haien jatorrizkoa erakutsiko da bata eta bestea erkatzeko.


TAG txartelarekin batera, erabiltzaileei eranskailu bat emango zaie ibilgailuaren aginte-panelean ipintzeko. Haren koloreari esker, ordenantza hau betearazteko ardura duten zaindarien sarrerak eta egonaldiak kontrolatu ahal izango dituzte.

9. ARTIKULUA.- XEDAPEN ERKIDEAK

9.1. Durangoko Udalak behar beste egiaztapen egin ahal izango ditu ofizioz, ordenantza honetan jasotzen diren txartelak eman aurretik, bertan exijitzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.

9.2. Ordenantza honek aipatzen duen dokumentazioaz eta, kasu bada, egiten diren egiaztapenez gain, behar bezala justifikaturik ez dagoen edozein atal egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatu ahal izango dizkio interesatuari Durangoko Udalak.

9.3. Txartelen erabiltzaile baimendu guztiek derrigor emango diote Durangoko Udalari, hamabost (15) asteguneko epean, honako edozein arlotan gertatutako aldaketen berri: ibilgailuen titulartasunean edo garaje komunitarioko plazaren jabeagoan nahiz errentari-jitean, jabearen bizilekuan eta txartelak edo bereizgarriak emateko kontuan hartu ziren gainerako datuetan eta inguruabarretan. Horrela egiten ez badute, Durangoko Udalak txartela kendu eta urtebetetik (1) hiru (3) urtera bitarte berritzea ukatzeko eskumena izango du, bai eta, kasu bada, aplikagarri diren zehapenak aplikatzeko ere.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

10. ARTIKULUA.- OHIKO HORNITZAILEENTZAKO ETA MERKATARIENTZAKO KU-DEAKETA-SISTEMA

10.1. Oinezkoen Guneko merkatariak, inorenak diren ostalaritzako establezimenduak eta etxebizitza partikularrak hornitzen dituzten ohiko hornitzaileen administrazio-erregistroa egingo da; bertan, egiten duten hornikuntza-mota, ibilgailuaren modeloa eta matrikula eta hornitzen duten establezimendu/saltegiak agertuko dira.


10.2. Xede horretarako, hornitzaileek honako agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- a) Eskaera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta, eta eskatzailearen identitatearen egiaztapena.
- b) Banaketa egiten deneko establezimendu edo denden zerrenda.
- c) Ibilgailuaren fitxa teknikoa.
- d) Gida-baimena, indarrean dagoena.
- e) Erantzukizun zibilaren aseguruia, indarrean dagoena.
- f) Ibilgailua Durangoko Udaleko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erroldan alta emanda badago, zerga hori ordainduta duela egiaztatuko da.

10.3. Gune Historikoan garatzen den jardueraren titularrak/merkatariak lehen aipatutako ohiko hornitzaileen kudeaketa araudiari atxiki nahi bazaizkio, aurreko a) atalean zehazturikoaz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Jardueraren titularra den pertsona fisikoaren edo juridikoaren, haren ezkontide edo afektibitate-harreman parekoa duen pertsonaren edo lerro zuzeneko ondorengoan jabetzapeko ibilgailuaren egiaztagiria. Xede horretarako, ibilgailuaren jabetzat joko da Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emandako zirkulazio-baimenean agertzen den bera.
- b) Gidatzeko baimena indarrean izatea.
- c) Indarrean dagoen erantzukizun zibilaren aseguruia.
- d) Ibilgailua Durangoko Udaleko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erroldan alta emanda badago, zerga ordaindu izanaren egiaztagiria.
- e) Jarduera-baimen bakoitzeko ibilgailu bat baino ez da baimenduko.

Jarduerako merkatariak/titularrak, oinezkoen gunera, astelehenetik larunbatera, 6:00etatik 13:30etara, sartzear gain, arratsaldez ere sartu nahi badira 4. artikuluan zehaztutako baldintzen arabera, TAG txartela eskatu eta lortu behar dute dagokion tasa ordaindu eta gero.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

10.4. Euren zerbitzuak eskaintzeko oinezkoen gunera sartu nahi diren garraiolari ez diren profesionalak, honakoak egiaztatuko dituzte:

- a. Ibilgailu industrialia, profesionalaren jabetzapekoa edo turismo ibilgailu batetik eratorria (Trafiko, Zirkulazio eta Bide Segurtasunerako Legearen II. eranskina, B apartatua, 30. digitua). Ibilgailuak enpresa eta jarduerari buruzko errotulua eramango du. Ibilgailuaren jabetzat hartuko da Trafiko Lurralde Zuzendaritzak luzaturiko zirkulazio-baimenean agertzen dena.
- b. Autonomia dela ziurtatzen duen egiaztagiria.
- c. Indarrean dagoen gida-baimena izatea.
- d. Erantzukizun zibilaren aseguruia izatea, indarrean dagoena.
- e. Durangoko Udaleko trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga-eroldan alta emandako ibilgailua bada, aipatutako zerga hori ordaindu izanaren egiaztagiria.

10.5. Erabiltzaileei pegatina bat emango zaie ibilgailuaren aginte-panelean ipintzeko. Haren koloreari esker, ordenantza hau betearazteko ardura duten zaindarien sarrerak eta egonaldiak kontrolatu ahal izango dituzte.

11. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK XEDAPEN OROKORRAK.


Ordenantza honetako edozein artikulua urratzeak edo hausteak trafikoa antolatzeko araua hautsi izanaren jite bera izango du, eta martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan zehazten denaren arabera zehatuko da –Trafikoari, Ibilgailu Motor-dunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu artikulatuaren V. Kapituluak, garatzeko Araudia eta hari atxikiriko gainerako legezko xedapenak.

Arau-hausteek zehapenak ekarriko dituzte eta horiek ezartzeko, Trafikoaren, Ibilgailu Motor-dunen Zirkulazioaren eta Bide-segurtasunaren alorreko zehapen-prozeduraren araubidea onartzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuak adierazitakoa hartuko da oinarritzat.

TAO zaindarien, udaltzainen eta horretarako eskumena duten gainerako funtzionarioek ipiniko dituzte ordenantza honen arau-hausteei dagozkien salaketak.

Ibilgailuaren titularrak, horretarako bereziki deituta, arau-haustearen arduraduna identifikatu behar du derrigor. Dagokion prozedura-izapidean, betebeharrak honetan bidezko arrazoirik gabe huts egiten bada, 12.3.b) artikuluan jasotzen den arau-haustearen egile gisa zigortuko da.

Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztian, Bide-segurtasunari buruzko Legearen eta hori garatzeko ematen diren gainerako araudietan jasotzen denari atxikiko zaio.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Arau-haustea izango da ordenantza honetan jasotzen den edozein arauren aurka egin edo ez betetzea. Arau-haustek lau azpi-ataletan banatzen dira:

12.1. A MOTAKO ARAU-HAUSTEAK: 30 euro (**ARINAK**)

Baimendutako gehieneko egonaldia 10 minutu baino gutxiago gainditzea.

12.2. B MOTAKO ARAU-HAUSTEAK: 60 euro (**ARINAK**)

Baimendutako gehieneko egonaldia 10 minutu edo gehiago gainditzea.

12.3. C MOTAKO ARAU-HAUSTEAK: 90 € + TXARTELA EDOTA BEREIZGARRIA KENTZEA (**ARINAK**)

- a) Durangoko Udalari hamabost asteguneko epean, honako edozein arlotan gertatutako aldaketen berri ez ematea: ibilgailuen titulartasuna, jabearen bizilekua, garaje komunitarioko plazaren titulartasuna edo errentamendua eta egoiliarrei edo TAG txartelak edo bereizgarriak emateko kontuan hartu ziren gainerako datuak eta inguruabarrak.
- b) Arau-haustearen ustezko arduraduna den gidaria ez identifikatzea, ibilgailuaren jabea horretarako deitu denean.
- c) Titularrak TAG txartela baimenik ez duten subjektuei, kolektiboari edo ibilgailuei lagatzea. Txartelaren lapurretaren edo galdu izanaren berri ez dagoen bitartean, borondatez laga dela ulertuko da.

12.4 D MOTAKO ARAU-HAUSTEAK: 120 euro (**LARRIAK**)


- a) Baimenik ez duten ibilgailuak Oinezkoen Gunean sartzea.

13. ARTIKULUA.- ZEHAPENAK

Ordenantza honetan jasotako arau-haustek isunaz zigortuko dira. Isunen zenbatekoak artikuluko honen hurrengo atalean zehaztu dira. Horrez gain, dagokion txartela kenduko zaio 12. artikuluko 3. atalean jasotako arau-haustea bada (C motakoa), eta txartelaren titularrak ezin izango du beste txartelik (ezin motatakorik) lortu, gutxienez urtebetean eta gehienez hiru urtean.

A motako arau-haustek 30 euroko isuna izango dute; B motakoek, 60 euroko isuna; C motakoek 90 euroko isuna eta gutxienez urtebetez (1) eta gehienez hiru (3) urtez txartela kentzea; eta D motakoek 120 euroko isuna.

Ordenantza hau hausteagatiko zehapenak, 12. artikuluari atxikiz, trafikoari buruzko arauak hausteagatiko beste edozeinekin bateragarria izango da, bereziki norabide debekatuko seinaleen agindua urratzeagatik bada.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

A eta B motako zehapenak %30eko beherapena izango dute baldin eta, prozedura zehatzailearen dekretua jakinarazi den egunetik zenbatzen hasi eta 30 eguneko epean ordaintzen bada.

Ordainketa hori gauzatzeak ez du esan nahi ibilgailuak Oinezkoen Gunean segi deza-keenik, sarrera eta unitateko gehieneko egonaldiko ordutegi-sistema aplikatuko da.

14. ARTIKULUA. IBILGAILUA ERRETIRATZEA

14.1. Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 71.e) artikulua xedatzen duenaren arabera, ordenantza honek hartzen duen espazio-eremuan baimenik gabe dauden ibilgailuak erretiratu egingo dira.

14.2. Balizko horietan, interesatuak ezin izango du 9. artikulua aipatzen duen zehapenak aurretiaz ordaintzeko eskubidea erabili.

14.3. Bide publikotik ibilgailuak kentzeko zerbitzuen prestazioak eta ibilgailua udal biltegietan edukitzeak dagokien Zerga-ordenantzan jasotzen diren tasak eragingo dituzte, eta ibilgailua itzuli aurretik ordaindu beharko dira, kasuan kasu ezar litezkeen zehapenen kalterik gabe.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA

Alkatetzak etenean utzi ahal izango du ordenantza honen aplikazioa lurralde-eremu osoan edo zati batean, hark egokitzen jotzen dituen aldietan edo egunetan, jendearen intereseko beste edozein inguruabarrekin zerikusia duten arrazoiengatik.


BIGARRENA

Alkatetzak, behar bezala justifikaturiko larrialdiren batengatik edo jendearen interesen mesedetan, ordenantza honek aipatzen dituen txartelen indarraldia aldatu –luzatu edo murriztu– ahal izango du.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean **osorik argitaratu eta hogeiei egunera jarriko** da indarrean.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

BIGARRENA

Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztian, aplikagarri zaion guztian, osagarri gisa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea, Zirkulazio-araudia eta garatzeko gainerako xedapenak hartuko dira kontuan.

HIRUGARRENA

Zehapenatarako ordenantza honetan zehaztu diren zenbatekoak berrikusi ahal izango dira eta, kasu guztietan, hiru urtean behin eguneratuko dira Alkatetzaren Dekretu bidez.